

18.– PROSERPINA´REN PUNI-SAGARRA



Zeru-lurretako aginteak jainkoen artean banatu ebezan: Pluton´eri lurpeko kobetako erregetza emon eutsoen. Ez jakon lar atsegin izan aginte ori eta asarretu ez zedin, Jupiter´ek esan eutson Proserpina emongo eutsola emaztetzat.

Bildur zan Jupiter neskearen ama zan Zeres´eri jainkoen arteko erabagi ori azaltzeko eta luzaroan ez eutson ezer esan.

Pluton aspertu egin zan itxaroten eta egun baten lur-gaiñean agertu zan eta isil-isillik urreratu zan Proserpina bere lagunakaz jolasean egoan zelaira. Artu besoetan neskea eta bere burdira eroan eban. Eta abiada osoan ezkutatu zan lurpeko jaurrerian, Jupiter´ek izendatutako emaztea gogorkeriz artuta.

Zeres lur-ama eten barik ebillen bere alaba Proserpina´ren billa, eta iñon ez eban urratsik aurkitzen. Azkenean aitzu egin zan lur-ama lurraren zeeregiñak beteteaz eta indar barik geratu zan lurra, urte aretan ez eban lurrak emon ez bedarrik, ez zugatzik, eta ez eukan itxartuteko itxurarik.

Nekazariak larritu egin ziran lurra lotan egoalako eta Jupiter´engana joan ziran lagutzaren billa.

Entzun ebazan Jupiter´ek enakazarien eskariak eta dei egin eutson Zeres´eri eta lurra itxartu egiala agindu eutson, asi daitela lurra frutu barriak emoten: badarrak, landarak, zug atzak eta gaiñerakoa.

Ezetz erantzun eutson lur-amak edo Zeres´ek: -Ez naz asiko barriro lan orretan, Proserpina nire alabea neure ondora oker barik etorri-arte.

Jupiter´ek erantzun eutson urtenerazoko ebal Proserpina lurpeko erreñutik, Pluton´en menpetik, eta laster izango ebal bere ondoan. Baiña baldintza bat ipiñi eutson: Neskeak ez ebal ez jan eta ez edan bear ezer Pluton´en erreñuan, eta baraua gorde ete eban jakiteko Jupiter´ek Merkurio bere ordezkoa bialdu eban. Laster eldu zan Merkurio lurpeko erreñura eta Proserpina oso makal egoala jakin eban, egin eban barau gogorragaitik.

Pluton´ek emazte barik gelditzen zala jakin ebanean, barau-itza austeko puni-sagar

zoragarri bat eskiñi eutson Proserpina´ri.

Zoratuta lez egoan Proserpina eskintzen eutson ale ederragaitik, artu eta jan egin eban eta orrelan barau-agindua ausi.

Baraua azkeneraiño gorde ez ebalako, Jupiter auxa agindu eutson: Sei illebete izango zala Pluton´en emazte lurpeko erreñuan eta negua amaitzen zanean urtengo ebal, beste sei illebete lur-gaiñean igaroteko.

Arrezkero, urteko udea amaitzen danean, orriak jausten asten diranean, lurrak dardara egiten dau eta lurpetik zalburdi batek urteten dau, onen gidaria jantzi baltzez doala lau zaldien ugalak eskuetan dituala.. Emakume bi egoten dira itxaroten lur-gaiñean landara biren erdian, bata gaztea eta bestea zarra. Berbarik alkarrari esan barik besarkatzen dira eta gazteak zalburdia igoten dau

Urtero etorten da lurpeko erregea dan Pluton Proserpina bere emaztearen billa eta zelan ezkututzen dira begira, negarrez, gelditzen da emakume zarra, "lur-ama" dan Zeres.

OLAZAR´tar Martin´ek